

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramán nahi badugu, oso garrantzitsua iruditzen zaigu hainbat enpresa edo pertsonekin kontaktuan jartzea, dena geure kabuz egitea oso zaila baita. Horretarako, elkarte batzuekin harremanetan jarriko gara, eta hauek lekua zein garraio baliabideak emateaz arduratuko dira beste hainbat baliabideren artean.

Lehenik eta behin, gure proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa da konpasak saltzeko edo bertan lana egiteko lokal bat edukitzea. Horregatik, UGGASArekin jarriko gara kontaktuan (*UGGASAk Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A. esan nahi du*). Agentzia honek behar-beharrezkoak diren elementuak aportatuko dizkio erabiliko dugun lokalari: argindarra, gasa, ura eta interneta hain zuzen ere. Guzti hauegatik, UGGASAk hilabetean 30€ kobratuko dizkigu, gazte ekintzaileak gara eta. Lehen bi urteetan, agentzia honek, gazte ekintzaileei baliabide hauek emategatik 30€ bakarrik kobratzen dizkie. Guk aliantza hau sortzea erabaki dugu gure proiektuaren lehen bi urteetarako behintzat, hasieran bultzada handi bat emateko oso bide aproposa iruditzen zaigulako. Gainera, honen bidez diru asko aurreztuko dugu, gaur egun oso garesti dauden zerbitzuak oso merke eskaintzen dituzte eta.



Guk sortutako konpasak bezeroen etxeetara bidaltzea pentsatuta daukagunez, ezinbestekoa da guretzat “Correos”-ekin harremanetan jartzea. Honek erraztasun handiak emango dizkigu gure konpasak bezeroen etxeetara bidaltzeko, hau baita gaur egun honetarako dagoen biderik erraz eta zuzenena. Correosekin aliantza bat sortzea oso garrantzitsua dela deritzogu gure enpresaren indargune nagusietako bat bidalketak dira eta.

Gure enpresarentzat webgunea sortzea pentsatu dugunez, hau sortzeko “Dominio.es” webgunea erabiliko dugu.

“Milan” enpresarekin ere harremanetan jartzeko beharra dugu, konpasak sortzeko oinarria beraiek eskainiko digutelako. Milan enpresarekin aliantza sortzea funtsezkoa dela iruditzen zaigu, materialaren zati handi bat enpresa honi erosiko diogulako. Enpresa hau liderra da borragoma fabrikazioan, eta nazioarteko erreferentea papergintzako, bulegoko, eskolako eta arte ederretako artikuluetan. Gainera, saltzerako garaian beraiengan konfidatu nahi dugu gure errepresentanteak izan daitezen, hau da, beraien katalogoan gure konpasa sar dezaten eta horrela beraien materiala saltzen den dendetan gurea ere sal dadin.



“Intel” Estatu Batuetako korporazioarekin ere kontaktuan jarriko gara enpresa honek gure konpasak funtziona dezan eman beharreko pausoak aurrera ematen lagunduko digulako. Korporazio honek konputazioaren eta komunikazioen industriarako zirkuitu integratuak diseinatu, fabrikatu eta saltzen ditu mundu mailan. Enpresa honen laguntza behar-beharrezkoa da enpresa honen laguntzarekin konpas tradizionalari ezaugarri berezi bat gehitzeko gai izango garelako, txipa hain zuzen ere.



Proiektua abian jartzeko eta ondoren aurrera eramateko, guk geuk jarriko ditugu hasierako inbertsioak. Diru sarrera hauek motz geratuko direla aurreikusten dugunez, mailegu bat eskatu diogu Kutxabank banketxeari, honela proiektua martxan jartzeko baliabideak lortzeko.

Elkarte hauekin guztiekin aliantza bat adostea lortzen badugu, gure proiektuarentzat aurrera pauso handi bat izango dela deritzogu, honek lana asko erraztuko digulako eta proiektua guk dauzkagun baliabideekin bakarrik aurrera ateratzea oso zaila iruditzen zaigulako, ezinezkoa ez esate arren.

